

Eibarko Udalak Robotikan inguruko udaleku teknologikoa antolatu du zientzia eta teknologiaren mundu ikusgarrian murgiltzeko. Robotak erabiliaz diseinatzen, eraikitzen eta programatzen ikasiko dute Lego Education WeDo plataforma erabiliz, haurren inteligentzia, gaitasunak eta doaiak garatuz ondo pasatzen duten bitartean. Tailer honetan parte hartzeko ezinbestekoa izango da aita zein amaz lagunduta etortzea.

**Tramitatzailerak:** Garapen ekonomikoa, enplegu eta berrikuntza saila

**Hartzaileak:** LH 3. eta 4. mailak

**Ikastaroaren prezioa:**

**36€** (Eibarren erroldatuak)

**61€** (Eibartik kanpokoak)

**Ikastaroaren ordainketa:** matrikula ordainketa bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta

**Eskaera egiteko tokia:**

PEGORA, Herritarren Zerbitzurako Bulegoa.

**Nork emango du: DOPLAY**

**Non:** Liburutegia. Portalea.

**Datak:** bi txanda

**Martxoak 29, 30 eta 31**

**Apirilak 9, 16 eta 23**

**16:00etatik 18:00etara**

**Ikasle kopurua:** gutxienez 5 ikasle, eta gehienez 10 ikasle

**Ikastaroaren hizkuntza:** euskeraz.

**Eskaera egiteko epea:**

**2016ko martxoaren 1etik 11ra (biak barne)**

### **Aurkeztu beharreko agiriak:**

“**IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIA**” izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, [www.eibar.eus](http://www.eibar.eus) eskuragarri).

Aitaren, amaren edo tutorearen **NANaren** edo balio bereko dokumenturen baten kopia.

**NAN** dokumentuen alde biak A-4 neurriko alde bakar batean inprimatuko dira.

Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

### **Kudeaketa arauak:**

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxienerako ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da ([www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)), **2016ko martxoaren 16an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxienerako ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehienerako ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **2016ko martxoaren 16an 09:00etan**. Zozketa era honetan egingo da:

Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztiekin zerrenda bat egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio.

Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat ateratzen da.

Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik hasita elkarren hurreneko ondoren datozenak izango dira, plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren web-gunean egongo da **2016ko martxoaren 16tik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Informazio gehiago: 943 708 451 telefonoan